


Behikia

ez Erotu
Erosi
Trankil



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ez Erotu

Erosi TranKil



Behikiak, Euskadiko saltokietara heldu baino lehenago, kontrol zorrotz-zorrotzak igaro behar ditu. Kontrol horiek bat egiten dute gaur egungo zientzia-ezaguerekin, eta, gainera, zorrotzagoak dira indarreko arauetan legez ezarritakoak baino.

Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek parte-hartze aktiboa dute Behien Entzefalopatia Espongiformeari (BEE) edo, esan ohi den bezala, "behi eroen gaitzari" **Aurea Hartu, Zaindu eta Kontrolatzeko Planean**. Planaren bidez, hainbeste neurri hartu dira, batez ere bi arlo handi hauetan:

ABEREEN OSASUNA

■ 1994 ezkerotik, abere hausnarkariei **ezin zaizkie**, debekatuta baitago, **animalien osagaiekin egindako irinak eman** jateko.

■ **Aldian-aldian kontrolak** egiten dira pentsu-lantegietan eta nekazaritza-ustiategietan.

■ Euskadiko hiltegiengan hiltzen diren hogeita lau (24) hilabetetik gorako behi, idi eta zezen guztiei **BEE** (behien entzefalopatia espongiformea) gaitza **aurkitzeko testa** egiten zaie.

■ Derioko Neiker laborategiak egiten du gaitza aurkitzeko testa, eta emaitzak 24-72 orduren buruan lortzen dira. Analisia positiboa bada, **kendu egiten da animalia elikagaien katetik**.

ELIKAGAIEN SEGURTASUNA

■ Euskal Autonomia Erkidegoan, **arris-kuko material espezifikoak (AME) deuseztatzearen gaineko kontrolak** egiten dira. Hauexek dira Materialok:

12 hilabetetik gorako abereetan:

- Entzefaloa (garunak)
- Begiak
- Bizkarrezurra
- Amigdalak

■ **Bizkarrezurraren muina**

■ **eta edozein behiren hesteak**

ABEREAREN GAINERAKO ATALAK, LASAI JAN DAITEZKE.

■ **Etengabeko alerta-sistema dago**, elikagaien inguruko edozein larrialditarako.

■ **Ezin da**, debekatuta baitago, **hausnarkariak etxeetan hil** (218/2000 Dekretua, azaroaren 7koa).

Kontsumitzaileei gogorarazi nahi diegu, bestalde, eskubidea dutela behikia erosten dutenean behar den informazio guztia eskuratzeko. Behikiaren etiketan edo azalpen-txarteletan, kontsumitzaileak hainbat informazio izango du bere esku, hain zuzen ere Europako arau berriak behikiaren etiketarako eskatzen duen informazio guztia.

Behien Entzefalopatia Espongiformeari Aurea Hartu, Zaindu eta Kontrolatzeko Plana

ONTZIRATUTAKO OKELAREN ETIKETA

Atalaren merkataritza-izena	Enpresaren Identifikazioa (izena edo baitzu-izena eta helbidea)
Erloa edo aberearen identifikazioa	URTUMEA LEPOALDEA 2.a GISATZEKOA ERLO-ZK.: 001130 E-N HILA 10.07792/SS E-N ZATIKATUA 10.08309/SS
Hiltegiaren identifikazioa	
Zatikatzeoko gelaren identifikazioa	
Datak	GORDE 0'TIK 8'RA BITARTEAN Iraungitze data: 2001-02-25 Kg. bakoitzaren prezioa: 1,190 Pta. Pisu garbia: 0,750 Kg. Guztira: 892 Pta.
Albaitaritza-ikuska-penaren zigilua	
Kantitate garbia	

ONTZIRATU GABEKO OKELARI

BURUZKO INFORMAZIOA

Merkataritza-izena	Hiltegiaren identifikazioa
HILTEGIA: E.-10.07585/BI	Erloa edo aberearen identifikazioa
ABERE-ZK.: ES 001520047282	Zatikatzeoko gela

Aberea Euskal Autonomia Erkidegoko hiltegiaren batean hil duten ziurtatu nahi baduzu, begira iezaiozu identifikazio-zenbakiari eta egiaztatu bertan **VI, SS edo BI** agertzen den.

AUKERAKO ETIKETA:

Eusko Jaurlaritzaren 235/2000 Dekretuaren arabera, **debekatuta dago kontsumitzailea nahas dezakeen edozein informazio jartzea**, hau da, ezin da jarri frogatu eta kontrolatu ezin den ezer. Etiketak aberearen jatorriari buruzko leku-aipamenen bat egiten duenean, nahitaez, honako **hiru informazio hauek** sartu behar dira batera: **jaiolekua, hazlekua edo hazlekuak (bat baino gehiago badira) eta hiltegia**.

KONTSUMITZAILEAREN WEB ORRIA:

Nahi baduzu, informazio gehiago aurki dezakezu Eusko Jaurlaritzaren web orrian: www.euskadi.net.

